

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Edizioa: 1.a, 2024ko urtarrila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Ikerlariak:

Oskar Longo Imatz, Miren Bilbao Gaztañaga, Nieves Corcuera Bilbao eta Itziar Urresti Bilbao

Diseinua:

Gazteen Euskal Behatokia

Maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia

Itzulpena:

Gazteen Euskal Behatokia

ISSN: 2792-7067

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Lehendakaritza
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Presidencia



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| ZER DA AURRERA BEGIRA?..... | 4 |
| METODOLOGIA | 5 |
| 1. EGUNGO EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA | 6 |
| 2. NORBERAREN POZTASUN INDIZEA | 7 |
| 3. BIZITZAREN ALDERDIEN BALANTZEA..... | 8 |
| 4. LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA..... | 9 |
| 5. LANA AURKITZEA AURREIKUSTEA | 10 |
| 6. PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA | 11 |
| 7. DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA | 12 |
| 8. EMANTZIPAZIOA ZAPUZTUKO DELA AURREIKUSTEA | 13 |
| 9. AMATASUN ETA AITATASUN ATZERATUAREN INDIZEA | 14 |
| 10. ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA INDIZEA..... | 15 |
| ONDORIOAK | 16 |
| I.ERANSKINA. NOLA KALKULATZEN DIREN ADIERAZLEAK | 18 |
| II.ERANSKINA: ADIERAZLEEN BILAKAERA 2013-2022 | 22 |
| ANEXO III. ADIERAZLEAK KALKULATZEKO ERABILITAKO OINARRIZKO DATUAK..... | 23 |

ZER DA AURRERA BEGIRA?

Aurrera Begira Gazteen Euskal Behatokiak urtero egiten duen ikerketa da, euskal gazteek gaur egun duten pertzepzioa eta epe laburrean izango dituzten etorkizunerako itxaropenak ezagutzeko.

Hamaikagarren edizio honetan, gazteen egoeraren bilakaera, orainaren balorazioa eta etorkizunerako aurreikuspenak erakusten dituzten hamar adierazleetan lortutako emaitzak aurkezten dira.


Aurrera Begira-k, hamaika urtez etenik gabe argitaratu ondoren, euskal gazteen egoera ebaluatzeko eta jarraitzeko tresna erraz eta sintetiko bat eskaintzen jarraitzen du, 10 adierazleren bidez. Adierazle horiek bereziki eragiten dute gazteen egoera nola baloratzen duten, eta, bereziki, enplegua eta emantzipazioa azpimarratzen dituzte, baita haien etorkizuna nola hautematen duten ere. Gazteen lehentasunen eta bizi-proiektuak garatzeko dituzten zailtasunen bilakaera ezagutzeak aukera ematen die gazteen arloan erantzukizun politiko eta teknikoak dituztenei erabaki informatuak hartzeko.

METODOLOGIA

| | |
|---|--|
| IKERKETA TEKNIKA | Nork bere burua betetzeko online inkesta, galdera gehienetan galdeketa egituratua eta itxia duena |
| UNIBERTSOA | Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteak |
| INKESTA KOPURUA | 6.737 inkesta egin dira (1.113 Araban bizi direnei, 3.224 Bizkaian bizi direnei, 2.054 Gipuzkoan bizi direnei, 334 Euskaditik kanpo bizi direnei eta beste 12k ez dute non bizi diren zehaztu nahi izan) |
| LAGIN AKATSA | \pm % 1,6 (% 95,5eko konfiantza-maila eta $p=q=0,5$) |
| LANDA LANAREN EPEAK | 2023ko abenduaren 11 eta 15 bitartean |
| IKERKETAREN DISEINUA ETA EMAITZEN ANALISIA | Gazteen Euskal Behatokia |
| LANDA LANAREN ENPRESA ARDURADUNA | INGARTEK Consulting S.L. |

1. EGUNGO EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA


Norberaren egoera pertsonalari, gazteen egoera orokorrari eta Euskadiren egoerari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.



| EGUNGO EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA | | | | | | | | |
|------------------------------------|-----------|---------|------------|------------|------------|-------|---------|----------|
| Guztira | Emakumeak | Gizonak | 15-19 urte | 20-24 urte | 25-29 urte | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| 65 | 64 | 65 | 68 | 65 | 62 | 64 | 64 | 66 |

2. NORBERAREN POZTASUN INDIZEA

Norberaren egoerari buruzko hainbat arlo aintzat hartuta (lan egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, ikasketak edo prestakuntza maila, familia, astialdia edo denbora libre, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasun fisiko eta mentala, itxura fisikoa, hilean duten dirua eta familiarekin edo beren kontura bititzea, norberaren kasua kontuan izanda), bakoitzarekiko poztasunari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan).



| NORBERAREN POZTASUN INDIZEA | | | | | | | | |
|-----------------------------|-----------|---------|------------|------------|------------|-------|---------|----------|
| Guztira | Emakumeak | Gizonak | 15-19 urte | 20-24 urte | 25-29 urte | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| 71 | 70 | 72 | 71 | 70 | 71 | 70 | 71 | 71 |

3. BIZITZAREN ALDERDIEN BALANTZEA


Bizi-alderdien balantzeak erlazioan jartzen ditu, alde batetik, gazteek beren bizitzako hamar alderdiri ematen dieten garrantzia eta, bestetik, haiekin lortzen duten gogobetetasuna, eta bi kasuetan 0-100 eskala erabiltzen da. Kontuan hartutako hamar alderdiak hauek dira: lan egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, ikasketak edo prestakuntza maila, familia, astialdia edo denbora libre, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasun fisikoa, osasun mentala, itxura fisikoa, hilean duten dirua eta familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasua kontuan izanda. Gogobetetzearen kenketak ken alderdi bakoitzari emandako garrantziak zehazten du dagoen arraila, eta balantzea positiboa edo negatiboa den.

| | GOGOBEETASUNA | GARRANTZIA | BALANTZEA |
|---|---------------|------------|-----------|
| Hilean duzun dirua | 60 | 81 | -21 |
| Osasun mentala | 70 | 87 | -17 |
| Zure lana | 65 | 80 | -15 |
| Astialdia | 70 | 81 | -11 |
| Osasun fisikoa | 74 | 85 | -11 |
| Harreman sentimentalak edota sexualak | 66 | 74 | -8 |
| Lagunak | 76 | 83 | -7 |
| Ikasketak, formakuntza | 76 | 82 | -6 |
| Familia | 83 | 89 | -6 |
| Itxura fisikoa | 69 | 72 | -3 |
| Norberaren kontura edo familiarekin bizi izatea | 73 | 73 | 0 |

| BIZITZAREN ALDERDIEN BALANTZEA | | | | | | | | | |
|---|---------|----------|--------|--------------|-------|-------|---------------------|---------|----------|
| (GOGOBEETASUNA – GARRANTZIA) | GUZTIRA | SEXUA | | ADIN TALDEAK | | | LURRALDE HISTORIKOA | | |
| | | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Hilean duzun dirua | -21 | -25 | -18 | -16 | -25 | -24 | -22 | -23 | -20 |
| Osasun mentala | -17 | -22 | -13 | -12 | -19 | -21 | -17 | -18 | -16 |
| Zure lana | -15 | -17 | -12 | -8 | -17 | -19 | -15 | -17 | -12 |
| Astialdia | -11 | -13 | -10 | -8 | -13 | -15 | -12 | -13 | -10 |
| Osasun fisikoa | -11 | -13 | -10 | -7 | -11 | -15 | -10 | -11 | -10 |
| Harreman sentimentalak edota sexualak | -8 | -7 | -9 | -8 | -9 | -8 | -8 | -8 | -8 |
| Lagunak | -7 | -8 | -5 | -6 | -7 | -8 | -8 | -7 | -5 |
| Ikasketak, formakuntza | -6 | -8 | -4 | -11 | -7 | 0 | -7 | -6 | -5 |
| Familia | -6 | -7 | -4 | -5 | -6 | -6 | -7 | -6 | -5 |
| Itxura fisikoa | -3 | -6 | 1 | -5 | -3 | 0 | -2 | -3 | -2 |
| Norberaren kontura edo familiarekin bizi izatea | 0 | -1 | 2 | 19 | -1 | -16 | 2 | 0 | 1 |

4. LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA

Urtebetean enplegua galtzea edo beren lan-egoera okertzea oso edo aski litekeena delako ustea duten langile gazteen ehunekoa.




LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA

| | Guztira | Emakumeak | Gizonak | 15-19 urte | 20-24 urte | 25-29 urte | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|--|-----------|-----------|-----------|------------|------------|------------|-----------|-----------|-----------|
| Lana galtzeko arriskua | 27 | 30 | 24 | | 29 | 25 | 32 | 26 | 26 |
| Baldintzak okertzeko arriskua | 12 | 13 | 10 | | 11 | 12 | 14 | 12 | 12 |
| ARRISKUA GUZTIRA (galtzea+okertzea) | 39 | 43 | 34 | | 40 | 37 | 46 | 38 | 38 |

*15-19 urteko adin-taldean ez dago estatistikoki esanguratsuak diren datuak emateko adina gazte lanean.

5. LANA AURKITZEA AURREIKUSTEA

Urtebeteko epean enplegua aurkitzea espero duten langabe gazteen ehunekoa.




| EXPECTATIVA DE EMPLEO | | | | | |
|-----------------------|-----------|---------|------------|------------|------------|
| Guztira | Emakumeak | Gizonak | 15-19 urte | 20-24 urte | 25-29 urte |
| 72 | 73 | 71 | * | 78 | 69 |

* 15-19 urteko adin-taldean ez dago estatistikoki esanguratsuak diren datuak emateko adina gazte langabezian.

6. PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA


Ikasketak bukatutakoan, prestakuntzari lotutako enplegua aurkitzea espero duten ikasleen ehunekoa.



| PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA | | | | | | | | |
|--|-----------|---------|------------|------------|------------|-------|---------|----------|
| Guztira | Emakumeak | Gizonak | 15-19 urte | 20-24 urte | 25-29 urte | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| 80 | 77 | 82 | 80 | 80 | 68 | 77 | 78 | 83 |

7. DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA


Etorkizunean, joan nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera emigratu beharko dutela uste duten gazteen ehunekoa.



| DERRIGORREZ EMIGRATU BEHARRA AURREIKUSTEA | | | | | | | | |
|---|-----------|---------|------------|------------|------------|-------|---------|----------|
| Guztira | Emakumeak | Gizonak | 15-19 urte | 20-24 urte | 25-29 urte | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| 9 | 7 | 10 | 8 | 10 | 8 | 7 | 8 | 9 |

8. EMANTZIPAZIOA ZAPUZTUKO DELA AURREIKUSTEA


Emantzipazio-proiektuak urtebeteko epean gauzatzerik izango ez dutela uste duten gazteen ehunekoa, gurasoen etxetik atera nahi izan arren horretarako aukerarik ikusten ez dutelako, edo, bestela, emantzipatuta egon arren gogoz kontra gurasoen etxera itzuli beharko dutela uste dutelako.



| EMANTZIPAZIOA ZAPUZTUKO DELA AURREIKUSTEA | | | | | | | | |
|---|-----------|---------|------------|------------|------------|-------|---------|----------|
| Guztira | Emakumeak | Gizonak | 15-19 urte | 20-24 urte | 25-29 urte | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| 43 | 42 | 44 | 41 | 52 | 35 | 42 | 47 | 42 |

9. AMATASUN ETA AITATASUN ATZERATUAREN INDIZEA


Seme-alabak izatea gustatuko litzaiekeen seme-alabarik ez duten pertsonen ehunekoa, baina egoera hori nahi duten adinarekin gertatzea oso litekeena ez dela edo ez dela uste dutenen ehunekoa.



| AMATASUN ETA AITATASUN ATZERATUAREN INDIZEA | | | | | | | | |
|---|-----------|---------|------------|------------|------------|-------|---------|----------|
| Guztira | Emakumeak | Gizonak | 15-19 urte | 20-24 urte | 25-29 urte | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| 26 | 29 | 24 | 19 | 30 | 30 | 26 | 29 | 23 |

10. ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA INDIZEA

Batez besteko puntuazioa, 0tik 100era bitarteko eskalan, bost urteko epean norberaren, gazteen eta Euskadiren egoerak izango duen bilakaerari dagokionez.



| ETORKIZUNAREKIKO KONFIANTZA INDIZEA | | | | | | | | |
|-------------------------------------|-----------|---------|------------|------------|------------|-------|---------|----------|
| Guztira | Emakumeak | Gizonak | 15-19 urte | 20-24 urte | 25-29 urte | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| 59 | 59 | 59 | 61 | 59 | 57 | 59 | 60 | 58 |

ONDORIOAK

Aurrera Begira 2023 ikerketaren emaitzek adierazleen susperraldi orokorra erakusten dute, aurreko urtearekin alderatuta. Oraindik pandemiaren aurreko balioetara iritsi ez diren arren, adierazle guztiak hobetu dira, 2022ko balio berean mantentzen den adierazle bat izan ezik. Egungo egoeraren balorazioak, norberaren egoerarekiko poztasunak, enpleguari eta emantzipazioari buruzko aurreikuspenek eta etorkizunarekiko konfiantzak hobera egin dute. Amatasun- eta aitatasun atzeratuaren indizeak soilik mantentzen du balio bera, hau da, nahi duten adinean seme-alabarik izango ez dutela uste duten gazteen ehunekoak.

- ✓ Egungo egoeraren balorazioa 2023an 100etik 65 puntutan kokatu da, hau da, 2022ko emaitzatik 3 puntu gorago. Adierazle hori osatzen duten hiru errealitateetan gertatu da hobekuntza hori: norberaren egoeran, gazteria osoaren egoeran eta Euskadiko egoera orokorrean. Gazteenak, 15 eta 19 urte bitartekoak, dira egungo egoeraren balorazio positiboena egiten dutenak.
- ✓ Norberaren poztasun indizeak puntu bat egin du gora aurreko urtearen aldean, eta 100etik 71ra iritsi da. Adierazlea osatzen duten hamaika arloetatik, familia, lagunak eta ikasketak dira gazteei gogobetetasun handiena eragiten dieten hiru arloak; aitzitik, eskuragarri duten dirua, lana edo lan-itxaropenak eta harreman sentimentalak edo sexualak dira gazteek gogobetetasun gutxien duten alderdi pertsonalak.
- ✓ Arlo pertsonal gehienetan gazteen gogobetetzea handia den arren, sentitutako gogobetetzea arlo bakoitzari emandako garrantziarekin lotzen denean, alderdi batzuetan gogobetetzea garrantziaren azpitik dagoela ikusten dugu. Erlazio horretatik abiatuta, bizi-alderdien balantzea kalkulatu da. Balantze horren arabera, 2023an, aurreko urteetan bezala, hilean eskuragarri duten dirua da gogobetetzearen eta garrantziaren arteko distantziarik handiena erakusten duen eremua. Diruaren ondoren, osasun mentala dator, ikerketa honetan lehen aldiz sartu dena, osasun fisikotik bereiziz. Azkenik, lan-egoera edo enpleguarekiko aurreikuspenak aurreko urteekin alderatuta hobera egin du eta bigarren postutik hirugarrenera pasatu da. Alderdi horietan guztietan, balantzea negatiboagoa da adinak gora egin ahala, bai eta emakumeen artean ere.
- ✓ Lan-arloan, nabarmen egin du behera urtebeteko epean enplegua galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskuaren pertzepzioak, eta 6 puntu galdu ditu 2022aren aldean. Adierazle honetan, aurreko urteetan bezala, emakumeen pertzepzioa gizonena baino negatiboagoa da.
- ✓ Bestalde, langabezia dauden gazteen % 72k uste du litekeena dela 2024an lana aurkitzea, eta ikasten ari diren gazteen % 80k uste du ikasketak amaitzean prestakuntzarekin bat datorren lana aurkituko duela, serie osoko ehunekorik handiena.
- ✓ Derrigorrezko emigrazioaren aurreikuspena, etorkizunean, nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera behartuta egongo direla uste duten gazteen ehunekoa neurtzen duena, puntu bateko jaitsiera izan du 2022tik eta % 9an kokatzen da. Balio hori oso egonkor mantendu da azken urteetan.
- ✓ Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikusten duten gazteen portzentajea % 43koa da 2023an, eta 2022ko emaitza hobetzen du 2 puntutako jaitsierarekin. Urtebeteko epean ezin izango direla

emantzipatuta bizi uste duten gazteen ehuneko handiena 20 eta 24 urte artekoei dagokie (% 52). 25-29 urtekoen taldean, emantzipazio zapuztua % 35era jaisten da.

- ✓ Nahi den amatasuna edo aitatasuna atzeratuko dela uste duten gazteen ehunekoak aurreko urteko balioa errepikatzen du, % 26koa, serieko altuena. Hori da, 2022ko ikerketaren emaitzak ikusita, hobetu ez den adierazle bakarra.
- ✓ Azkenik, etorkizunarekiko konfiantza indizeak 5 puntuko hobekuntza nabarmena izan du aurreko urtearekin alderatuta, eta 100 puntutik 59 puntura iritsi da. Bost urteko epean egoerak hobera egingo duela uste duten gazteen ehunekoak gora egin du adierazle hau kalkulatzeko den hiru alderdietan: egoera pertsonala, gazteena (talde bezala) eta Euskadikoa.

I. ERANSKINA. NOLA KALKULATZEN DIREN ADIERAZLEAK

1. Egungo egoeraren balorazio indizea (EEBI)

Adierazlea hiru galderatan oinarritzen da. Norberaren egoera pertsonalari (A), Euskadiko gazteen egungo egoerari (B) eta Euskadiren egungo egoerari (C) Otik 10era bitarteko puntuazioa ematea eskatu zaie inkestatuei.

Adierazlea kalkulatzeko, alderdi bakoitzari emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egin da, eta emaitza 10ez biderkatu da, Otik 100era doan eskalara egokitzeko.

$$IVMP = [(A+B+C) / 3] \times 10$$

2. Norberaren poztasun indizea (NPI)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da. Galdera horretan euren bizitzaren hamar alderdietan duten poztasun-mailari Otik 10era bitarteko puntuazioa ematea eskatu zaie inkestatuei. Hauexek dira hamar alderdi horiek: beren lan-egoera edo lan-aurreikuspenak (A), beren ikasketak edo prestakuntza maila (B), beren familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasuaren arabera (C), beren familia (D), beren astialdia edo denbora libre (E), beren lagunak (F), beren harreman sentimental edota sexualak (G), beren osasun fisikoa (H), beren osasun mentala (I), hilean duten dirua (J) eta beren itxura fisikoa (K).

Adierazlea kalkulatzeko, alderdi bakoitzari emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egin da, eta emaitza 10ez biderkatu da, Otik 100era doan eskalara egokitzeko.

$$NPI = [(A+B+C+D+E+F+G+H+I+J+K) / 11] \times 10$$

3. Bizitzaren alderdien balantzea (BAB)

Balantzea bi galdera oinarri hartuta egiten da. Lehenengo galderan inkestatutako pertsonari eskatzen zaie adierazteko 0 eta 10 arteko eskala batean zenbat punturekin neurtzen duten beren bizitzako zenbait alderdiri emandako garrantzia (lanari, ikasketa edo formazioari, familiari, osasunari, itxura fisikoari, harreman sentimental edota sexuarekin, astialdiari, lagunei, diruari eta ematzipatzeari, hau da, beren kontura bizitzeari). Bigarren galderan eskatzen zaie adierazteko alderdi horiekiko (beren lan-egoera edo lanarekiko aurreikuspenak, beren ikasketak edo formazio maila, beren familia, beren osasun fisikoa, osasun mentala, beren itxura fisikoa, beren harreman sentimental edota sexualak, beren astialdia, beren lagunak, hilean duten dirua eta beren familiarekin edo beren kontura bizitzea, norberaren kasuaren arabera) duten gogobetetasun pertsonala edo poztasun maila, 0-10 eskala berean neurtuta.

Ondoren balio guztiak 10ez biderkatzen dira, 0-100 eskalara egokitzeko, eta, ondoren, asebetetzearen kenketa egiten da, alderdi bakoitzari emandako garrantzia kenduta, dagoen arrakala eta balantzea positiboa edo negatiboa den zehazteko.

4. Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua (LGBOA)

Gazte landunei egindako bi galderatan oinarrituta eratzen da adierazlea. Lehenengoan (A), inkestatutako pertsonen eskatzen zaie adierazteko zer neurritan uste duten litekeena dela urtebeteko epean daukaten enplegua galtzea. Bigarrenean (B), daukaten enplegua ez dutela galduko uste dutenei galdetzen zaie adierazteko zer neurritan uste duten litekeena dela urtebeteko epean beren lan-baldintzak okertzea.

Adierazlea kalkulatzeko, batera kontuan hartzen dira, alde batetik, gazte landunen ehuneko zenbatek uste duten litekeena dela beren enplegua galtzea urtebeteko epean eta, bestetik, lana galtzeko arriskurik aurreikusten ez duten arren, zenbatek uste duten litekeena dela daukaten lan egoera okertzea.

$LGBOA = (A = \text{Segur aski bai} + \text{Agian bai}) + [(A = \text{Ez duzu uste} + \text{Seguruenik ez}) \& (B = \text{Segur aski bai} + \text{Agian bai})]$

5. Lana aurkitzea aurreikustea (LAA)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da (A), eta bertan langabeei ondokoa eskatu zaie: adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebeteko epean enplegua aurkitzea.

Adierazlea kalkulatzeko, urtebeteko epean seguru aski edo agian enplegua aurkituko dutela uste dutenen ehunekoak hartu dira kontuan.

$LAA = (A = \text{Seguru aski bai edo Agian bai})$

6. Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea (LLIA)

Adierazlea galdera batean oinarritzen da (A), eta bertan ikasleei galdetu zaie zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) euren prestakuntzarekin lotutako enplegua aurkitzea, ikasketak amaitutakoan.

Adierazlea kalkulatzeko, prestakuntzari lotutako enplegua seguru aski edo agian lortuko dutela uste dutenen ehunekoak hartu dira kontuan.

$LLIA = (A = \text{Seguru aski bai edo Agian bai})$

7. Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea (DEBA)

Gazte guztiei eginiko bi galderatan oinarrituta dago. Lehen galderan (A) inkestatuei galdetu zaie zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) etorkizunean atzerrira lan egitera joan behar izatea. Bigarrenean (B) persona berberei galdetu zaie zein neurritan joan nahi izango luketen atzerrira lanera (asko, nahikoa, gutxi, batere ez).

Adierazlea kalkulatzeko, seguru aski edo agian atzerrira joan beharko dutela baina joateko gogo gutxi edo batere ez dutela dioten lagunak bakarrik hartu dira kontuan.

$DEBA = (A = \text{Seguru aski bai edo Agian bai} \& B = \text{Gogo gutxi edo Batere ez})$

8. Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea (EZA)

Adierazlea lau galderatan oinarritzen da. Lehen bi galderak gazte ez emantzipatuei egin zaizkie; hirugarrena eta laugarrena, aldiz, gazte emantzipatuei.

Lehen galderan (A) gazte ez emantzipatuei eskatu zaie adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebetean emantzipatzea, eta bigarren (B), zein neurritan nahi duten emantzipatu (asko, nahikoa, gutxi, batere ez). Hirugarren galderan (C), gazte emantzipatuei eskatu zaie adieraz dezatela zein neurritan uste duten probablea dela (seguru aski bai, agian bai, ez duzu uste, seguruenik ez) urtebetean gurasoekin bizitzera itzuli behar izatea, eta laugarrenean (D) zein neurritan (asko, nahikoa, gutxi, batere ez) nahi duten gurasoekin bizitzera bueltatu.

Adierazlea kalkulatzeko, kontuan hartu da, emantzipatu gabeko gazteen artean, urtebeteko epean euren kabuz bizitzea ez dela probablea uste dutenen ehunekoa, nahiz eta emantzipatzeko gogoia izan. Era berean, kontuan hartu da, emantzipatutako gazteen artean, urtebeteko epean seguru aski edo agian gurasoen etxera bueltatu behar izango dutenen ehunekoa, horretarako gogo gutxi edo batere ez izan arren.

EZA = (A = Ez duzu uste edo Seguruenik ez & B = Asko edo Nahikoa) +

(C = Seguru aski bai edo Agian bai & D = Gutxi edo Batere ez)

9. Amatasun eta aitatasun atzeratuaren indizea (AAAI)

Adierazlea bi galderatan oinarrituta egiten da, seme-alabarik ez duten gazteei zuzenduta. Lehenengoa, etorkizunean seme-alabak izateko nahiari buruzkoa da, eta bigarrena, nahi duten adinarekin hori gertatzeko probabilitateari buruzkoa..

Adierazlea kalkulatzeko, seme-alabarik ez duten baina etorkizunean seme-alabak izatea gustatuko litzaiekeen baina nahi den adinarekin hori gertatzea oso edo nahiko gertagarritzat jotzen ez dutenen ehunekoak hautatzen dira.

AAAI = (A = Asko edo Nahiko & B = Gutxi edo batere aukerarik ez)

10. Etorkizunarekiko konfiantza indizea (EKI)

Adierazlea hiru galderatan oinarritzen da. Lehen galderan (A), bost urteko epean egoera pertsonala hobetuko dela, bere horretan geratuko dela edo okertuko dela uste duten galdetu zaie inkestatuei. Bigarrenean (B), Euskadiko gazteen egoera hobetuko dela, bere horretan geratuko dela edo okertuko dela uste duten galdetu zaie. Eta hirugarrenean (C) Euskadiko egoera orokorra hobetuko dela, bere horretan geratuko dela edo okertuko dela uste duten galdetu zaie.

Adierazlea kalkulatzeko, galdera bakoitzean, kenketa egin da egoera hobetuko dela uste dutenen eta okertuko dela uste dutenen ehunekoan artean. Ez dira kontuan hartu egoerak berdin jarraituko duela diotenen ehunekoak, ezta erantzunik eman ez dutenenak ere.

NORBERAREN EGOERARI BURUZKO AURREIKUSPENA (NEA) = (% Hobetuko da - % Okertuko da) A galderan

GAZTEEN EGOERARI BURUZKO AURREIKUSPENA (GEA) = (% Hobetuko da - % Okertuko da) B galderan

EUSKADIREN EGOERARI BURUZKO AURREIKUSPENA (EEA) = (% Hobetuko da - % Okertuko da) C galderan

Ondoren, kendura bakoitzari 100 gehitu zaio, zenbaki negatiboak ekiditeko, hau da, NEA+100, GEA+100 eta EEA+100.

Adierazle partzial hauen balioa 0 eta 200 artekoa da. 100etik beherako balioek aurreikuspen ezkorrek adierazten dituzte; 100etik gorakoek, aurreikuspen baikorrak.

Azkenik, aurreko hiru adierazle partzialen batez besteko aritmetikoa kalkulatu da. Emaitza zati bi egin da, 0-100 eskalara egokitze aldera.

$$EKI = ([(NEA+100) + (GEA +100) + (EEA + 100)] / 3) / 2$$

II.ERANSKINA: BILAKAERA 2013-2022

ADIERAZLEEN

| AURRERA BEGIRA | Neurria | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|--|---------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Egungo egoeraren balorazio indizea | (0-100) | 60 | 62 | 66 | 67 | 69 | 69 | 70 | 64 | 63 | 62 | 65 |
| Norberaren poztasun indizea | (0-100) | 80 | 78 | 81 | 80 | 79 | 78 | 78 | 74 | 73 | 70 | 71 |
| Bizitzaren alderdien balantzea | | | | | | | | | | | | |
| Dirua | (0-100) | -14 | -15 | -9 | -10 | -12 | -13 | -13 | -19 | -20 | -21 | -21 |
| Osasun mentala | (0-100) | | | | | | | | | | | -17 |
| Lana | (0-100) | -15 | -15 | -11 | -13 | -17 | -18 | -16 | -21 | -19 | -16 | -15 |
| Astialdia | (0-100) | -8 | -8 | -9 | -10 | -8 | -8 | -10 | -14 | -13 | -15 | -12 |
| Osasun fisikoa* | (0-100) | -8 | -8 | -7 | -7 | -6 | -8 | -9 | -7 | -9 | -12 | -11 |
| Harreman sentimentalak edota sexualak | (0-100) | -4 | -4 | -5 | -5 | -3 | -3 | -2 | -8 | -8 | -9 | -8 |
| Lagunak | (0-100) | -2 | -2 | -3 | -3 | -3 | -3 | -4 | -6 | -5 | -7 | -7 |
| Ikasketak | (0-100) | -10 | -11 | -7 | -9 | -6 | -9 | -9 | -7 | -7 | -7 | -6 |
| Familia | (0-100) | -4 | -5 | -4 | -4 | -3 | -3 | -4 | -4 | -4 | -6 | -5 |
| Itxura fisikoa | (0-100) | | | | | 11 | 11 | 12 | 3 | -1 | 0 | -3 |
| Emantzipatzea, norberaren kontura bizi izatea | (0-100) | | | | | -1 | 1 | -2 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua | | 57 | 47 | 52 | 42 | 33 | 30 | 34 | 48 | 42 | 45 | 39 |
| Lana galtzeko arriskua | (%) | 39 | 36 | 44 | 33 | 25 | 23 | 27 | 34 | 31 | 32 | 27 |
| Baldintzak okertzeko arriskua | (%) | 18 | 11 | 8 | 9 | 8 | 7 | 7 | 14 | 11 | 13 | 12 |
| Arrisku gabe | (%) | 43 | 53 | 48 | 58 | 67 | 70 | 66 | 52 | 58 | 55 | 61 |
| Lana aurkitzea aurreikustea | (%) | 54 | 60 | 71 | 69 | 78 | 82 | 92 | 64 | 62 | 71 | 72 |
| Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea | (%) | 46 | 56 | 65 | 68 | 74 | 76 | 74 | 76 | 74 | 77 | 80 |
| Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea | (%) | 16 | 14 | 14 | 12 | 11 | 8 | 8 | 10 | 8 | 10 | 9 |
| Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea | (%) | 45 | 48 | 49 | 46 | 46 | 49 | 40 | 41 | 42 | 45 | 43 |
| Amatasun eta aitatasun atzeratua | | | | 21 | 21 | 14 | 22 | 21 | 19 | 21 | 26 | 26 |
| Etorkizunarekiko konfiantza indizea | (0-100) | 64 | 74 | 74 | 72 | 75 | 74 | 69 | 63 | 61 | 54 | 59 |

*2023ko edizioan, osasuna bereizi egin da osasun fisikoan eta osasun mentalean. Gaur egun osasun fisikoa deitzen den lineak lehen osasuna zenaren datuak ditu.

III.ERANSKINA. KALKULATZEKO OINARRIZKO DATUAK

ADIERAZLEAK ERABILITAKO

EGUNGO EGOERAREN BALORAZIOA ETA ETORKIZUNERAKO BILAKAERAREN AURREIKUSPENA

NORBERAREN EGOERA

Otik 10era nola baloratzen duzu zure egoera pertsonala gaur egun?

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------------|---------|----------|--------|--------------|-------|-------|---------------------|---------|----------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Batezbestekoa (0-10) | 7,2 | 7,1 | 7,3 | 7,4 | 7,1 | 7,0 | 7,1 | 7,1 | 7,3 |

Eta orain dela bost urtekoarekin konparatuz gero, zer deritzozu?

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Hobetu da | 57,6 | 57,2 | 58,1 | 49,1 | 59,0 | 65,5 | 56,7 | 58,2 | 55,3 |
| Berdin jarraitzen du | 19,9 | 19,0 | 20,8 | 24,1 | 18,6 | 16,7 | 19,2 | 19,3 | 22,5 |
| Okertu da | 20,3 | 21,0 | 19,7 | 24,1 | 20,1 | 16,5 | 21,8 | 20,5 | 20,0 |
| Ed/Ee | 2,1 | 2,8 | 1,4 | 2,7 | 2,3 | 1,2 | 2,3 | 2,0 | 2,2 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Eta, zure ustez, datozen bost urteetan zelako bilakaera izango du?

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Hobetuko da | 71,9 | 72,4 | 71,5 | 70,2 | 74,0 | 71,7 | 73,1 | 72,6 | 69,9 |
| Berdin jarraituko du | 16,8 | 17,0 | 16,6 | 18,3 | 14,4 | 17,7 | 14,9 | 16,0 | 18,8 |
| Okertuko da | 7,9 | 7,5 | 8,3 | 8,3 | 8,1 | 7,4 | 9,0 | 7,6 | 8,2 |
| Ed/Ee | 3,4 | 3,1 | 3,6 | 3,3 | 3,5 | 3,2 | 2,9 | 3,8 | 3,1 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

GAZTERIA OSOAREN EGOERA

Otik 10era nola baloratzen duzu Euskadiko gazteen egoera orokorra gaur egun?

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------------|---------|----------|--------|--------------|-------|-------|---------------------|---------|----------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Batezbestekoa (0-10) | 5,8 | 5,8 | 5,7 | 6,1 | 5,8 | 5,4 | 5,7 | 5,7 | 5,9 |

Eta, zure ustez, zer egingo du datozen bost urteetan Euskadiko gazteen egoerak?

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Hobetuko da | 20,9 | 20,3 | 21,5 | 23,0 | 20,9 | 18,5 | 22,2 | 21,3 | 19,8 |
| Berdin jarraituko du | 36,9 | 39,0 | 34,9 | 36,1 | 35,4 | 39,4 | 36,4 | 36,9 | 36,3 |
| Okertuko da | 38,4 | 37,0 | 39,7 | 36,4 | 39,9 | 39,0 | 37,4 | 38,0 | 39,9 |
| Ed/Ee | 3,8 | 3,8 | 3,9 | 4,5 | 3,9 | 3,1 | 4,0 | 3,8 | 4,0 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

EUSKADIKO EGOERA

Berriro ere, Otik 10era, nola baloratzen duzu Euskadiko egoera orokorra gaur egun?

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|-----------------------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Batezbestekoa (0-10) | 6,5 | 6,5 | 6,5 | 6,7 | 6,5 | 6,3 | 6,5 | 6,5 | 6,5 |

Eta, zure iritzi, datozen bost urteetan Euskadiko egoera...?

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Hobetuko da | 32,4 | 30,8 | 33,9 | 38,2 | 31,3 | 27,1 | 32,9 | 34,2 | 29,9 |
| Berdin jarraituko du | 37,9 | 40,6 | 35,3 | 36,4 | 37,6 | 39,8 | 35,8 | 37,6 | 38,8 |
| Okertuko da | 25,0 | 23,0 | 26,9 | 19,4 | 27,1 | 29,0 | 25,5 | 23,8 | 26,2 |
| Ed/Ee | 4,7 | 5,6 | 3,9 | 6,0 | 4,0 | 4,0 | 5,9 | 4,4 | 5,1 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

BIZITZAREN HAINBAT ALDERDIRI EMANDAKO GARRANTZIA ETA HORIEKIKO SENTITUTAKO GOGOBEKETASUNA

Eta orain zure buruan pentsatuz, zenbateko garrantzia ematen diozu, Otik 10era, momentu honetan zure bizitzako ondoko gauza bakoitzari?

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|--|---------|----------|--------|--------------|-------|-------|---------------------|---------|----------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Familiari | 8,9 | 9,0 | 8,8 | 9,0 | 8,8 | 8,8 | 8,9 | 8,9 | 8,8 |
| Osasun mentalari | 8,7 | 8,9 | 8,6 | 8,4 | 8,7 | 9,0 | 8,7 | 8,8 | 8,6 |
| Osasun fisikoari | 8,5 | 8,5 | 8,5 | 8,3 | 8,4 | 8,7 | 8,4 | 8,5 | 8,4 |
| Lagunei | 8,3 | 8,3 | 8,3 | 8,5 | 8,3 | 8,2 | 8,3 | 8,4 | 8,2 |
| Ikasketei, formakuntzari | 8,2 | 8,4 | 8,0 | 8,6 | 8,3 | 7,6 | 8,2 | 8,2 | 8,1 |
| Diruari | 8,1 | 8,3 | 8,0 | 7,9 | 8,2 | 8,4 | 8,1 | 8,2 | 8,1 |
| Astaldiari | 8,1 | 8,1 | 8,1 | 8,0 | 8,1 | 8,3 | 8,1 | 8,2 | 8,0 |
| Lanari | 8,0 | 8,1 | 7,9 | 7,1 | 8,2 | 8,7 | 7,9 | 8,1 | 7,9 |
| Harreman sentimentalei edota sexualei | 7,4 | 7,5 | 7,3 | 6,6 | 7,6 | 8,0 | 7,4 | 7,4 | 7,3 |
| Emantzipatzeari, zure kontura bizitzeari | 7,3 | 7,4 | 7,2 | 5,9 | 7,3 | 8,7 | 7,1 | 7,3 | 7,2 |
| Itxura fisikoari | 7,2 | 7,3 | 7,0 | 7,5 | 7,1 | 6,9 | 7,2 | 7,2 | 7,1 |

Eta Otik 10era, zenbateraino zaude pozik momentu honetan zure bizitzaren ondoko alderdi bakoitzarekin?

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|---|---------|----------|--------|--------------|-------|-------|---------------------|---------|----------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Zure familiarekin | 8,3 | 8,3 | 8,4 | 8,5 | 8,2 | 8,2 | 8,2 | 8,3 | 8,3 |
| Zure osasun mentalekin | 7,0 | 6,7 | 7,3 | 7,2 | 6,8 | 6,9 | 7,0 | 7,0 | 7,0 |
| Zure osasun fisikoarekin | 7,4 | 7,2 | 7,5 | 7,6 | 7,3 | 7,2 | 7,4 | 7,4 | 7,4 |
| Zure lagunekin | 7,6 | 7,5 | 7,8 | 7,9 | 7,6 | 7,4 | 7,5 | 7,7 | 7,7 |
| Zure ikasketekin, prestakuntzarekin | 7,6 | 7,6 | 7,6 | 7,5 | 7,6 | 7,6 | 7,5 | 7,6 | 7,6 |
| Eskuragarri duzun diruarekin | 6,0 | 5,8 | 6,2 | 6,3 | 5,7 | 6,0 | 5,9 | 5,9 | 6,1 |
| Zure astialdiarekin | 7,0 | 6,8 | 7,1 | 7,2 | 6,8 | 6,8 | 6,9 | 6,9 | 7,0 |
| Zure lan egoerarekin | 6,5 | 6,4 | 6,7 | 6,3 | 6,5 | 6,8 | 6,4 | 6,4 | 6,7 |
| Zure harreman sentimental edota sexuarekin | 6,6 | 6,8 | 6,4 | 5,8 | 6,7 | 7,2 | 6,6 | 6,6 | 6,5 |
| Familiairekin edo zure kontura bizitzearekin | 7,3 | 7,3 | 7,4 | 7,8 | 7,2 | 7,1 | 7,3 | 7,3 | 7,3 |
| Zure itxura fisikoarekin | 6,9 | 6,7 | 7,1 | 7,0 | 6,8 | 6,9 | 7,0 | 6,9 | 6,9 |

LAN EMIGRAZIOA

Uste duzu etorkizunean atzerrira joango zarela lan egitera?

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Segur aski bai | 16,1 | 17,6 | 14,7 | 19,7 | 17,0 | 11,2 | 18,2 | 15,9 | 14,4 |
| Agian bai | 27,5 | 26,4 | 28,5 | 31,3 | 29,4 | 21,2 | 27,5 | 27,1 | 27,5 |
| Ez duzu uste | 35,7 | 33,3 | 38,0 | 34,2 | 35,4 | 37,7 | 35,5 | 35,7 | 36,3 |
| Seguruenik ez | 17,4 | 19,9 | 15,1 | 11,1 | 15,6 | 26,4 | 16,6 | 17,3 | 19,3 |
| Ed/Ee | 3,3 | 2,8 | 3,7 | 3,8 | 2,6 | 3,5 | 2,3 | 4,0 | 2,5 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Eta zuk zenbateraino nahiko zenuke atzerrira joan lan egitera?

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Asko | 12,9 | 12,9 | 12,8 | 13,8 | 15,5 | 9,1 | 12,4 | 12,0 | 12,5 |
| Nahikoa | 27,6 | 26,7 | 28,4 | 33,6 | 30,1 | 18,4 | 26,8 | 26,7 | 28,5 |
| Gutxi | 38,6 | 38,4 | 38,7 | 38,4 | 37,3 | 40,2 | 40,2 | 39,3 | 38,6 |
| Batere ez | 17,9 | 19,4 | 16,5 | 10,4 | 14,8 | 29,4 | 18,4 | 18,2 | 18,4 |
| Ed/Ee | 3,1 | 2,5 | 3,5 | 3,9 | 2,3 | 3,0 | 2,2 | 3,9 | 2,0 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

ENPLEGUA

Uste duzu hemendik urtebetera zure lana galduko duzula, zuk hala nahi gabe? *

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Segur aski bai | 11,4 | 14,2 | 8,8 | | 12,7 | 10,9 | 13,9 | 11,5 | 10,7 |
| Agian bai | 15,2 | 15,6 | 14,8 | | 16,5 | 14,5 | 18,2 | 14,7 | 15,1 |
| Ez duzu uste | 43,3 | 42,9 | 43,6 | | 43,4 | 43,3 | 44,7 | 43,0 | 41,8 |
| Seguruenik ez | 26,4 | 23,4 | 29,1 | | 22,7 | 28,0 | 21,6 | 26,3 | 28,7 |
| Ed/Ee | 3,7 | 3,8 | 3,7 | | 4,7 | 3,3 | 1,7 | 4,5 | 3,7 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*Lan egin dutenei bakarrik galdetu zaie. 15 eta 19 urte bitartekoei dagokien zutabeen ez dago daturik adin-tarte horretan oso gazte gutxi baitaude lanean.

Eta uste duzu hemendik urtebetera zure lan baldintzak okertuko direla? *

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Segur aski bai | 3,3 | 3,8 | 2,9 | | 2,8 | 3,5 | 4,5 | 2,9 | 3,9 |
| Agian bai | 12,8 | 15,4 | 10,6 | | 13,3 | 12,5 | 15,4 | 12,9 | 12,3 |
| Ez duzu uste | 55,6 | 57,2 | 54,3 | | 54,3 | 56,5 | 58,0 | 55,2 | 54,3 |
| Seguruenik ez | 24,6 | 19,8 | 28,7 | | 26,6 | 23,6 | 18,1 | 25,4 | 25,4 |
| Ed/Ee | 3,7 | 3,8 | 3,5 | | 3,0 | 3,9 | 4,0 | 3,7 | 4,1 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*Lana galduko dutenik uste ez duten langileei bakarrik galdetu zaie. 15 eta 19 urte bitartekoei dagokien zutabeen ez dago daturik adin-tarte horretan oso gazte gutxi baitaude lanean.

Uste duzu hemendik urtebetera lana aurkituko duzula?*

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Segur aski bai | 29,2 | 37,6 | 21,9 | | 24,4 | 31,8 | | 20,1 | 38,6 |
| Agian bai | 42,7 | 35,3 | 49,0 | | 53,7 | 37,0 | | 50,1 | 39,2 |
| Ez duzu uste | 21,7 | 20,8 | 22,4 | | 17,8 | 24,2 | | 24,7 | 16,1 |
| Seguruenik ez | 3,1 | 2,8 | 3,4 | | 1,8 | 3,3 | | 2,2 | 3,4 |
| Ed/Ee | 3,4 | 3,4 | 3,3 | | 2,2 | 3,8 | | 2,9 | 2,7 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | | 100 | 100 | | 100 | 100 |

*Langabezian daudenei bakarrik galdetu zaie. 15 eta 24 urte bitartekoei dagozkien zutabeetan ez dago daturik adin-tarte horietan oso gazte gutxi baitaude langabezian.

Uste duzu ikasketak amaitzean zure prestakuntzari lotutako lana aurkituko duzula? *

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Segur aski bai | 34,8 | 30,7 | 38,7 | 33,3 | 39,0 | 23,0 | 28,7 | 32,4 | 40,2 |
| Agian bai | 44,7 | 46,1 | 43,4 | 46,9 | 41,0 | 45,3 | 48,3 | 45,4 | 42,3 |
| Ez duzu uste | 15,2 | 17,0 | 13,5 | 14,0 | 16,0 | 23,5 | 17,6 | 17,2 | 12,1 |
| Seguruenik ez | 2,5 | 3,0 | 2,0 | 2,3 | 2,5 | 4,3 | 2,6 | 1,9 | 3,4 |
| Ed/Ee | 2,7 | 3,1 | 2,4 | 3,4 | 1,5 | 3,8 | 2,8 | 3,1 | 2,1 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*Ikasleei bakarrik galdetu zaie.

EMANTZIPAZIOA

Uste duzu hemendik urtebetera zure kontura bizitzera joango zarela? *

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Segur aski bai | 5,9 | 6,0 | 5,8 | 4,3 | 4,1 | 11,9 | 4,2 | 5,0 | 7,8 |
| Agian bai | 10,4 | 10,9 | 10,0 | 6,8 | 9,7 | 19,1 | 9,5 | 8,9 | 12,9 |
| Ez duzu uste | 26,9 | 25,5 | 28,1 | 19,9 | 28,8 | 37,8 | 28,4 | 26,3 | 26,9 |
| Seguruenik ez | 56,1 | 57,0 | 55,3 | 68,0 | 56,9 | 30,3 | 56,9 | 59,0 | 51,6 |
| Ed/Ee | 0,8 | 0,6 | 0,9 | 1,0 | 0,5 | 0,8 | 0,9 | 0,7 | 0,7 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*Emantzipatuta ez daudenei galdetu zaie.

Eta zuk zenbateraino nahiko zenuke zure kontura bizitzera joan? *

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Asko | 30,7 | 33,9 | 27,8 | 15,6 | 34,4 | 55,2 | 31,9 | 29,8 | 31,4 |
| Nahikoa | 39,0 | 36,5 | 41,3 | 37,6 | 42,6 | 35,8 | 34,9 | 40,4 | 38,8 |
| Gutxi | 22,7 | 21,4 | 23,8 | 33,1 | 19,2 | 7,4 | 24,9 | 22,5 | 21,9 |
| Batere ez | 5,2 | 5,8 | 4,7 | 9,5 | 2,8 | 0,6 | 5,6 | 4,8 | 5,9 |
| Ed/Ee | 2,3 | 2,4 | 2,3 | 4,1 | 1,0 | 1,0 | 2,7 | 2,4 | 2,1 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*Emantzipatuta ez daudenei galdetu zaie.

Uste duzu hemendik urtebetera zure familiaren edo gurasoen etxera bizitzera bueltatuko zarela? *

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Segur aski bai | 5,4 | 4,9 | 5,9 | | 12,3 | 2,7 | 6,0 | 5,0 | 6,1 |
| Agian bai | 12,1 | 11,2 | 13,1 | | 16,9 | 10,5 | 6,7 | 11,9 | 13,1 |
| Ez duzu uste | 42,4 | 42,9 | 41,7 | | 42,3 | 42,6 | 46,8 | 43,1 | 43,4 |
| Seguruenik ez | 39,0 | 40,1 | 37,8 | | 26,8 | 43,3 | 39,7 | 38,4 | 36,3 |
| Ed/Ee | 1,2 | 0,8 | 1,5 | | 1,6 | 0,9 | 0,7 | 1,6 | 1,0 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*Emantzipatuta daudenei galdetu zaie. 15 eta 19 urte bitartekoei dagokien zutabearen ez dago daturik adin-tarte horretan oso gazte gutxi baitaude emantzipatuta.

Eta zuk zenbateraino nahiko zenuke familia edo gurasoen etxera bizitzera bueltatu? *

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Asko | 3,7 | 2,8 | 4,8 | | 6,3 | 2,3 | 3,3 | 4,0 | 3,6 |
| Nahikoa | 7,2 | 7,7 | 6,7 | | 15,6 | 3,5 | 6,8 | 7,7 | 7,0 |
| Gutxi | 37,7 | 33,7 | 42,1 | | 43,8 | 36,2 | 40,3 | 34,1 | 36,1 |
| Batere ez | 49,0 | 53,3 | 44,2 | | 32,2 | 55,9 | 46,7 | 52,2 | 50,6 |
| Ed/Ee | 2,4 | 2,5 | 2,2 | | 2,2 | 2,1 | 2,8 | 2,0 | 2,7 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*Emantzipatuta daudenei galdetu zaie. 15 eta 19 urte bitartekoei dagokien zutabearen ez dago daturik adin-tarte horretan oso gazte gutxi baitaude emantzipatuta.

AMATASUNA / AITATASUNA

Eta gustatuko litzaizuke etorkizunean seme-alabak izatea? *

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Asko | 34,1 | 37,4 | 31,0 | 32,2 | 35,6 | 34,5 | 30,9 | 32,8 | 37,6 |
| Nahikoa | 34,5 | 31,3 | 37,4 | 35,3 | 34,7 | 33,3 | 33,6 | 34,8 | 34,2 |
| Gutxi | 16,3 | 16,1 | 16,5 | 16,1 | 16,8 | 16,0 | 20,2 | 16,1 | 14,8 |
| Batere ez | 8,7 | 9,5 | 7,9 | 8,0 | 7,9 | 10,4 | 7,8 | 9,5 | 7,3 |
| Ed/Ee | 6,5 | 5,8 | 7,1 | 8,4 | 5,0 | 5,9 | 7,5 | 6,7 | 6,2 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*Galdera seme-alabarik ez duten gazteei bakarrik egin zaie

Zein adinetan, zenbat urterekin, gustatuko litzaizuke lehen seme-alaba izatea?*

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|---------|----------|--------|--------------|-------|-------|---------------------|---------|----------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Adina urteetan | 30,2 | 29,7 | 30,6 | 29,3 | 29,8 | 31,6 | 30,2 | 30,1 | 30,2 |

*Seme-alabarik ez duten baina etorkizunean seme-alabak izatea asko edo dezente gustatuko litzaiekeela adierazi duten gazteei bakarrik egin zaie galdera

Eta uste duzu adin horretan seme-alabaren bat izango duzula? *

| | Sexua | | | Adin-taldeak | | | Lurralde historikoa | | |
|----------------|------------|------------|------------|--------------|------------|------------|---------------------|------------|------------|
| | GUZTIRA | Emakumea | Gizona | 15-19 | 20-24 | 25-29 | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
| Segur aski bai | 8,3 | 9,4 | 7,2 | 9,5 | 7,1 | 8,3 | 8,0 | 8,6 | 7,9 |
| Agian bai | 47,7 | 50,0 | 45,3 | 55,9 | 45,6 | 40,7 | 44,9 | 43,7 | 54,9 |
| Ez duzu uste | 33,4 | 30,8 | 36,1 | 26,2 | 37,1 | 37,4 | 37,6 | 37,4 | 26,0 |
| Seguruenik ez | 6,2 | 5,4 | 7,1 | 2,7 | 6,3 | 10,3 | 4,1 | 5,9 | 7,1 |
| Ed/Ee | 4,3 | 4,3 | 4,3 | 5,8 | 3,8 | 3,2 | 5,3 | 4,4 | 4,1 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

*Seme-alabarik ez duten baina etorkizunean seme-alabak izatea asko edo dezente gustatuko litzaiekeela adierazi duten gazteei bakarrik egin zaie galdera